



Kirmen Uribe, bizitza, fikzioa

Uzt. 02 - Uzt. 03 2018

Kod. B01-18

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2018

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 02 - Uzt. 03 2018

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaro honetan Kirmen Uriberen sorkuntza lana izango dugu hizpide, eta bere eskutik barneratuko gara genero eta euskarri desberdinetan argitara eman dituen lanetan. Euskal eremuko eta nazioarteko adituak gonbidatu ditugu, eta bere poesia, narratiba, saio, nahiz ikuskizunen irakurketak eskainiko dizkigute. Oinarrian, bizitzaren eta literaturaren arteko mugak iraultzea maite duen idazlea kausituko dugu, keinu txikien poesiarekin hunkitzen gaituena. *Mussche* nahiz *Elkarrekin esnatzeko ordua* bezalako eleberriekin euskal exilioko heroi anonimoekin egingo dugu topo, *Bilbao-NY-Bilbao* eleberrian bezala, artearen funtzioaz etengabe hausnarketa egiten duen idazketarekin. Ikastaroko beste atal batzuetan, Uriberen literatur lana munduratzeko zubi-lana egin duten itzultzaileei emango diegu hitza. Azkenik, *Zaharregia*, *txikiegia agian* ikuskizunaz goatzera gonbiatuko zaitugu, Uribe, Urdangarin, Rueda eta Mendizabalekin batera.

[Kirmen Uriberi elkarriketa ETB ko Gure Kasa programan](#)

Helburuak

- Kirmen Uriberen sorkuntza lana aztertzea.
- Kirmen Uriberen literatur ibilbideaz hausnarketa egitea eta bertan azaltzen diren hainbat gairen inguruan solas egitea (bizitza-fikzioa, harremana, euskal exilioa, artearen funtzioa, euskal gizartea...)
- Kirmen Uriberen lanen itzulpengintzaz gogoeta egitea.
- Kirmen Uriberen sorkuntza lanez goatzeta.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2018-07-02

09:00 - 09:15	Dokumentazio banaketa
09:15 - 09:30	“Kirmen Uribe, bizitza, fikzioa” Mari Jose Olaziregi Alustiza Euskal Herriko Unibertsitatea - Letren Fakultatea
09:30 - 10:00	“Nire bitakora kaiera” Kirmen Uribe Idazlea
10:00 - 10:45	“Bilbao, New York, Bilbao” Jon Kortazar Uriarte Euskal Herriko Unibertsitatea - Bilboko Irakasleen U.E.
10:45 - 11:00	Atsedena
11:00 - 11:45	“Kirmen Uribe: literatura y desplazamiento” Luis Martín Estudillo University of Iowa
11:45 - 12:30	“ Lectura política de la obra de Kirmen” Sally Perret University of Maryland
12:30 - 13:15	“Kirmen Uribe y el compromiso con la memoria” María Jesús Nafria Fernández Universidad Complutense de Madrid - Facultad Filología
16:00 - 17:30	Mahai ingurua: “Kirmen Uribe itzuliz: bidaia amaigabea” Miren Ibarluzea Santisteban Bilboko Irakasleen U.E. (Moderatzailea) Nami Kaneko Tokyo University of Foreign Languages - Intervención por Skype Elizabeth Macklin Poeta eta itzultzailea - Intervención por Skype Edurne Alegría Aierdi Itzultzailea

2018-07-03

09:30 - 10:15	“La novela de investigación de escritor. Representaciones de la ambigüedad en la obra de Kirmen Uribe” José Martínez Rubio Universitat Jaume I
10:15 - 11:00	“Agirre lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzaren estrategia kulturala "Elkarrekin esnatzeko ordua"-n” Leyre Arrieta Alberdi Deustuko Unibertsitatea
11:00 - 11:15	Atsedena
11:15 - 12:00	“Kirmen Uriberen literatura eta euskal gizartea”

12:00 - 12:45

“Kirmen Uriberen obra eta ikuskizun multimedialak”

Lourdes Otaegi Imaz Euskal Herriko Unibertsitatea

12:45 - 13:30

“Keinuen poesia: Bitartean heldu eskutik”

Estibalitz Ezkerra Vegas University of Illinois at Urbana-Champaign

19:00 - 20:30

Jainko txiki eta jostalari hura (Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal)

Zuzendaritza



Mari Jose Olaziregi Alustiza

UPV/EHU, IRAKASLEA

Mari Jose Olaziregi (Donostia, 1963) Euskal Filologian doktore da eta Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle Titularra (Letren Fakultatea, Vitoria-Gasteiz). Hainbat unibertsitatetako irakasle gonbidatu izan da (University of Nevada, Reno; University of Chicago; City University of New York; Universität Konstanz...). Bi master ere eginak ditu, bata Ramon Llull Unibertsitatean (Bartzelona, 1998) eta bestea East Angliako Unibertsitatean (Erresuma Batua, 2007). Euskaltzaindiko kide urgazle da, 2004 urteaz gero, Basque Literature Series bildumaren editore da, Center for Basque Studies-en. 2010-2016 artean Etxepare Euskal Institutuko Euskara Zuzendaria izan zen. Bere argitalpenen artean, Euskal eleberriaren historia (2002), Waking the Hedhegog: Universe of Bernardo Atxaga (2005), edo editatutako BASque Literary History (2012) aipa daitezke. 2013tik MHLI Ikertalde Kontsolidatua eta beronek aurrera daramatzan proiektuak zuzentzen ditu.

Irakasleak



Edurne Alegría Aierdi



Hasier Arraiz Barbadillo


Gasteizen, 1973ko ekainaren 13an jaioa. EHU-UPVn Filologia Erromanikoa ikasten hasi arren Hispaniar Filologia lizentziaduna da. Gaur egun Bigarren Hezkuntzan literatura irakasteko masterra egiten ari da. Bitartean batez ere jarduera politikoari ekin zion, betiere Ezker Abertzalearen eremu soziopolitikoan. Batasuna alderdi politikoaren zuzendaritzako kide izateagatik bi urte eta erdiz Euskal Herritik kanpoko espetxe desberdinetan izan zen. Giltzapean asko ikasi omen zuen, zentzu guztietan. 2013. urtean Sortu alderdi politiko jaio berriaren lehendabiziko presidente (eta azkena) bihurtu zen. Halaber, EH Bildu koalizioaren eskutik legealdi batez (2012tik 2016ra) Eusko Legebiltzarreko kidea izan zen. Jarrera politikoari, eta finean, izaera politikoari uko egin gabe 2016ko uztaillean politikagintzan jarduteari uztea erabaki zuen. Harrezkero euskal narratiba garaikideko belaunadi berriari eta bertan Kirmen Uribe idazlearen lanak dituen garrantziari eta eraginari buruzko azterketa lana egin du.



Leyre Arrieta Alberdi


Universidad de Deusto, Directora del Departamento de Comunicación

Leyre ARRIETA ALBERDI es Doctora en Historia Contemporánea y profesora titular de Historia Contemporánea en la Universidad de Deusto. Ha investigado, tanto en solitario como en equipo, temas relacionados con nacionalismo vasco, exilio y europeísmo, historia de medios de comunicación y discurso de género en el nacionalismo vasco. Sus principales trabajos son: Estación Europa. La política europeísta del PNV en el exilio (1945-1977) (2007), La historia de Radio Euskadi (2009), Fondo Gobierno de Euzkadi: historia y contenido (2011) y la edición crítica y estudio introductorio de La Causa del Pueblo Vasco de F. J. Landaburu. Ha publicado numerosos artículos y ha participado en publicaciones conjuntas, tales como Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco (2012), Héroes y villanos de la patria (2021) y El laberinto de la representación.



Estibalitz Ezkerra Vegas


Estibalitz Ezkerra Vegas literatura konparatuan doktore da eta 2019tik euskal ikasketetan irakurle da Kaliforniako Unibertsitatean, Santa Barbaran. Ingeles literaturan masterra lortu zuen Nevadako Unibertsitatean, Renon, eta kazetaritzan zein artearen historian lizentziaduna da. Memoria, indarkeria eta kultur ekoizpena ditu ardatz bere lanak. Gai horien zein immigrazioaren gainean irakasten du.



Miren Ibarluzea Santisteban

UPV/EHU, irakaslea

Itzulpengintzan, argitaletxeetan eta eskolarako materialgintzan aritu ondoren, EHUKo Euskal Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean eskuratu zuen nazioarteko doktoretza 2017an (2018/19 ikasturteko doktorego sari berezia eta Koldo Mitxelena VI Saria jaso zituen). UPV/EHUK eta University of Groningen-ek eskainitako European Master in Multilingual Education masterra egin du (2020). Itzulpen Ikasketak eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika ditu ikergai nagusi: euskal itzulpengintzaren historia eta kritika, itzulpengintzaren soziologia, itzulpenaren errepresentazioak, itzulpen-ohiturak, eleaniztasuna eta hizkuntzen trataera bateratua. Euskara eta Euskal Kulturako irakasle jardun zuen 2011-2015 bitartean Frantzia, Michel de Montaigne-Bordeaux 3 eta Sorbonne Nouvelle-Paris 3 unibertsitateetan. 2016/2017 ikasturteaz geroztik UPV/EHUKo Bilboko Hezkuntza Fakultatean dihardu, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean, eta MHLI ikerketa-taldeko kide da (MHLI: www.mhli.net).



Nami Kaneko

Nami KANEKO literatur itzultzaile eta ikerlaria da. Ikasketa Hispanikoetako lizentziatura eta masterra egin zituen Tokyo University of Foreign Studies-en, eta doktorego ikasketak unibertsitate berean eta UPV/EHUKo Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak programan. Gaur egun, Fukuoka University-ko irakaslea da. Itzulpen hauek eginak ditu euskaratik japonierara, besteak beste: Kirmen Uriberen Bilbao-New York-Bilbao (2012) eta Mussche (2015, Japoniako Itzulpen Onenaren Saria eta Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria), Bernardo Atxagaren Soinujolearen semea (2020, Japoniako Itzulpen Onenaren Sarian finalista) eta Iban Zalduaren "Bibliografia" (2020). Ikerkuntzari dagokionez, eremu

eleanitzetan eta hizkuntza gutxituetan garatzen den literatura eta itzulpenaren arteko harremana du ikergai nagusi, eta ikuspegi horretatik aztertzen du euskal literatura.



Jon Kortazar Uriarte

UPV/EHU, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Literaturako katedraduna eta Compostelako Santiagoko irakasle bisitaria. Irakaslea, idazlea eta hainbat komunikabideetako kolaboratzailea. Sari garrantzitsuak jaso ditu: Galiziako PEN Clubak Rosalia de Castro Saria eskaini zion eta 2009an Bizkaiko Aldundiak Lauaxeta Sariaz omendu zuen. Gaur egun LAIDA (Literatura eta Identidadea) Ikerketa Taldeko burua da. Egungo Euskal Literaturaren Historia (2007-2017) eman du argitara eta ingelesez: Contemporary Basque Literature (Center for Basque Studies, Reno, 2016). XX. mendeko euskal literaturaz lanak plazaratu ditu, aipagarrienak: Euskal Literatura XX. mendean (zazpi argitalpen, 1990-2015), Teoría y práctica poética de Esteban Urkiaga, Lauaxeta (1986), Luma eta lurra (1997), Diglosia eta Euskal Literatura (2001), Postmodernitatea euskal kontagintzan (2003), Bernardo Atxaga: Basque Literature From The End Of The Franco Era To The Present (2007), Bitartean New York Kirmen Uriberen literaturgintza (2011)



Elizabeth Macklin

Elizabeth Macklin (AEBko NYeko Poughkeepsie; 1952): Bi poesia liburu argitaratuta ditu, "A Woman Kneeling in the Big City" (Emakume bat hiri handian belauniko; 1992-n) eta "You've Just Been Told" (Esan berri dizute; 2000-n) eta poemak aldizkari eta bilduma askotan, Erlea, The New Yorker, Boston Review, HATSaren Poesia eta The Penguin Book of the Sonnet barne. Hogeita bost urte pasatu zituen The New Yorker aldizkarian lanean, gehienetan estilo zuzenketak egiten. Bigarren liburua amaitu ondoren hasi zen Euskara ikasten, Amy Lowell Poetry Travelling Scholarship beka batekin urtebete bat Bilbon igaro zuenean, 1999etik 2000ra. Bekadun urtea amaiturik, autonomo legez hasi zen zuzenzaile, hizkuntza ikasten jarraitu ahal izateko. Harez geroztik zenbait idazlan ingeleseratu ditu, Kirmen Uriberen "Bitartean heldu eskutik" eta "Bilbao-New York-Bilbao" besteak beste. Hirugarren poesia liburua osatzen ari da.



Luis Martín Estudillo

Luis Martín-Estudillo is Associate Professor in the Department of Spanish and Portuguese at the University of Iowa, specializing in Spanish literature and culture from the 20th and 21st centuries. He has also published broadly on early modern topics. He is the Managing Editor of Hispanic Issues and Hispanic Issues Online. Martín-Estudillo has received the 2009-2010 Collegiate Teaching Award, the 2011-2013 Dean's Scholar Award, and two awards from the National Endowment for the Humanities, whose research fellowship he enjoyed in 2015-2016. See:

<https://clas.uiowa.edu/dwllc/spanish-portuguese/people/luis-mart%C3%ADn-estudillo>



José Martínez Rubio

<http://uji.academia.edu/Jos%C3%A9Mart%C3%ADnezRubio>



María Jesús Nafría Fernández

MARÍA JESÚS NAFRÍA FERNÁNDEZ Licenciada en Filología Hispánica por la Universidad Complutense de Madrid y con Máster en Estudios Literarios, ha estado siempre vinculada siempre al área cultural, en distintas librerías, bibliotecas y editoriales, donde actualmente trabaja. Además, ha participado en congresos internacionales y ha publicado varios artículos en revistas especializadas. Actualmente, se dedica a la investigación literaria dentro de los estudios de Doctorado, en especial en lo relacionado con la literatura vasca, donde se especializa su trabajo de investigación. Por último, colabora en distintos medios de comunicación, como el Café de la Lluvia, donde publica habitualmente en la sección El Anillo de los Peces, de contenido literario.



Lourdes Otaegi Imaz

UPV/EHU

Euskal Filologian lizentziatua (1982) eta Literatura arloan doktore (1992) Deustuko Unibertsitatean. Literatura Konparatuko postgradua egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean. Euskal literaturan espezializatu da eta zenbait azterketa monografiko burutu ditu Bigarren Errepublikaren garaiko Euskal Pizkundeari buruz, eta bereziki Xabier Lizardi idazleari buruz. Literatura garaikideari buruzko Ikerketa Proiektuetan parte hartu du, eta azterlan horien emaitza zenbait artikulu zientifiko eta liburu-ataletan mamitu da. Euskaltzaindiaren urgazle da eta Literatura Ikerketa Batzordearen kide da 1998tik hona (idazkari, 2000-2008), Literatura Terminoen Hiztegia egitasmoa koordinatuz (2008). Irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. Gisa berean, Baionako Master 1-en irakasten du (Univ. Michel de Montaigne Bordeaux III, Frantzia) eta UNED Unibertsitatearen Masterrean XIX. mendera arteko Euskal Literaturaren ikasketen arduradun da.



Sally Perret

SALLY PERRET, PhD Assistant Professor, Department of Modern Languages & Intercultural Studies

Selected Publications: "La prisionera se hace traidora: Las categorías políticas y la mirada refractada en Esos cielos de Bernardo Atxaga." Volumen sobre Bernardo Atxaga, Eds. José Ángel Ascunce Arrieta and Iker González-Allende. Barcelona: Editorial Anthropos (Forthcoming) "Fish and Trees Are Alike": The Movement of Identity in Kirmen Uribe's Bilbao-New York-Bilbao." *Hispanic Review*. 85.1 (2017). 23-45. "In the Name of the Nation?: The National Award in Narrative Literature, and the Democratization of Art in Spain (1977-2013)." *Journal of Spanish Cultural Studies* 16.1. (2015): 77-93. "Un nuevo tiempo espléndido." Prologue Kirmen Uribe. *Vidas y ficciones*. By Kirmen Uribe. Pamplona: Pamiela, 2014. 7-13.



Kirmen Uribe

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2018-03-01 ARTE	2018-05-31 ARTE	2018-07-02 ARTE
INVITADO IRIZAR	0 EUR	-	-
GONBIDAPENA	0 EUR	-	-
OROKORRA	-	60,00 EUR	70,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	-	35,00 EUR	-
IKASTAROAK GUZTIONTZAT MURRIZPENA	-	35,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	-	20,00 EUR	20,00 EUR
MATRIKULA BEREZIA	-	35,00 EUR	-
ELKAR txarteldunak	-	52,50 EUR	-
AEK euskaltegiko kide	-	52,50 EUR	-

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa